



Leku horietatik ikuspegiak zoragarriak dira.

Garobel mendilerroko gailur enblematikoa (Urduña)

TXARLAZOKO IBILBIDEA

Aitziber Amas



Bidea gorantz doa sigi-saga.

Garobel mendilerroan naturaz gozatzeko aukera ugari ditugu: haranean paseatzea, mendiegalak estaltzen dituzten basoetan barneratzea, harrizko hormen gailurretik sai arreen hegaldi lasaia ikustea, edo mendilerroko bazterrik ikusgarrietako batzuk bisitatzea. Oraingoan, Txarlazo mendira igotzea proposatzen dizuegu. Tontorrean Antiguako Andra Mariren monumentua dago.

Zeharkaldi honen abiapuntua Urduña da, Errege-erregina Katolikoek garaitik Bizkaian hiri-titulua daukan bizigune bakarra. Udalerri hori Arrastaria haran zabalean dago, bertan sortzen den Nerbioi ibaia bustia eta Garobel mendilerroaren hegoaldeko mazalak babestua. Hiriak oso historia luze eta oparoa du. Uharte txiki baten mo-



Iturria.

dukua da, Bizkaiko gainerako lurraldeetatik banandua eta Arabako nahiz Burgosko lurrek inguratua.

Antiguako Andra Mari

Urduñatik abiatuko gara, RENFEko geltokitik. Trenbidea zubi batetik gurutzatu, eta hiriaren zaindaria den Antiguako Andra

Mariren santutegia aurkituko dugu eskuin aldean. Idazkietan ageri den Bizkaiko lehen tenplua da. Gaur egun atal batzuk soilik geratzen dira zutik: arku zorrotza duen sarrera gotikoa eta oraingo elizaren albo batean dauden hondakin batzuk.

Egungo eliza XVIII. mendean eraiki zuten. Barrualdean, tradizioak dioenez masustondo baten gainean agertu zen Andra Mari baten irudi gotikoa gurtzen da.

Tenplua atzean utzita, errepide nagusitik irteten eta bide asfaltatu batetik joko dugu. Apur bat aurrerago, errepidea berriro zeharkatu eta basoan sartuko gara. Mendian gora egin ahala, bidea pista zabal bihurtzen da. Linea elektrikoaren ondotik doa. Burdinazko langa bat eta alanbre-hesi bat zeharkatu ondoren, erkametz-larre bat begiztatuko dugu.

Goldetxoko ataka

Bidea gorantz doa denbora guztian, erkametz eta pago artean sigi-saga, Ama Birjinaren edo



Txarlazo mendiaren tontorra.

Goldetxoko atakara iritsi arte. Heldu baino lehen, iturri bat aurkituko dugu eskuinaldean. Aldaparen azken zatiari ekin aurretik, geldialditxo bat egin dezakegu bertan, ura edateko eta freskatzeko.

Azken zati horretan, bidea Goldetxoko atatik doa beti. Arroken arteko pitzadura erraldoi bat da, mendilerroko goi-ordokira dararamana. Ezkerretarantz joango gara, behorren bazkalekuen artean, Antiguako Andra Mariren monumenturaino. 936 m garai den Txarlazo mendiaren tontorrean dago, Bizkaiko, Arabako eta Burgosko lurraldeak elkartzen diren lekuan hain zuzen ere. Monumentua 1904an egin zuten. Masustondo

baten enborra irudikatzen du, eta adarretan Ama Birjinaren iduria ageri da. 15 metro garai da.

Errege Bidea

Mendian gora hasi ginenetik, Errege Bidetik igo gara horraino. Bide hori 1772an egin zuten, Gaztelako mesetatik Bizkaiko golkoaren ertzeko portuetara joan ahal izateko. Koroak ordaindu zituen bidea egiteko lanak.

Leku horretatik ikuspegi zoragarria dago: Urduña eta Amurrio, Gorbeia mendigunea, itsasoa, Txolope mendia eta mendilerro osoa. Mendilerroko amildegi sakonetan saiak, beletak eta belatxingak ikusiko ditugu. ■



Pyrrhocorax graculus.

PICO DEL FRAILE

El Pico del Fraile es una curiosa formación de roca caliza que vista de perfil se asemeja a un fraile. Únicamente es posible acceder a su cumbre mediante escalada de muy alto nivel, siendo de hecho un "clásico" en la escalada vasca. No por ello hay que dejar de realizar la excursión hasta la base del pico, desde donde podemos contemplar paisajes verdaderamente impresionantes como la vertiginosa muralla caliza que cae hacia el valle de Orduña o el monte Gorbeia a lo lejos.

Esta sugerente forma de abad domina el valle de Arrastaria y es una de las más bellas formaciones de la zona con una amplia tradición montañera. Fue ascendida en solitario, por primera vez, por Ángel Sopena en 1924, por lo que también se le conoce como Pico Sopena. Esta escalada se considera como la primera efectuada en Euskal Herria. ■



OHARRAK

Nola iritsi

- RENFEko aldirietako C3 lineak Urduñarekin lotzen du Bilboko Abando geltokia. Ibilbidea tren-geltokian bertan hasten da.

Iraupena: 1h 20 m

Zailtasuna: ertaina-handia

Luzera: 8 km inguru (joan-etorria)

Ibilbidea oso ospetsua eta erabilia da Urduñan.